

## ITSUALDIA

Amaiur Puente Otero

*Pasai San Pedro*

*Ez dakit bekatari den ala ez.*

*Dakidan gauza bakarra hauxe da:  
itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala.*

Buelta eman dut, ezkerreko masaila burko bigu-  
nean hondoratu. Besoa luzatu eta mesanotxea  
haztatu dut botoia sakatu arte. «Goizeko bedera-  
tziak eta zazpi», informatu dit Catherinek. Ahots  
metalizatuaren esanei jaramonik egin gabe, beste  
buelta bat eman dut eta neure pentsamenduetan  
murgildu naiz, azken urte honetan egin dudan  
legez. Hori da neure ustean, behintzat, igaro den  
denbora. Urte bat. Orain dela urtebete, honezkero  
Komunen Ganberan egon nintekeen, agure gogai-  
karri eta garrasizaleez inguratuta. Orain dela urte-  
bete, nire izena Erresuma Batuko kazeta eta albis-  
tegi guztietan azaltzen zen. Orain dela urtebete,  
zorionekoa ni, emaztearekin gure etxeko sofan  
eseriko nintzatekeen, lanegun latz baten ostean,  
Manchesterreko derbya ikusteko, krispetak eta  
guzti. «*Go red devils!*», oihukatuko nukeen;  
Adelaide, berriz, Cityren jarraitzaile sutsua zen.

Orain dela urtebete hori guztia egin nezakeen. Orain, ordea, dena galdu dut. Boterea. Garrantzia. Emaztea. Futbola. Eta baita ikusmena ere, Lur planetako beste zazpi mila milioi eta zenbait biztanleekin batera.

Zientzialariek, izenik eta azalpenik aurkitu ezinean, komunikabideetan erabiltzen hasi zen terminoaz izendatu zuten planeta osoan —eta ez Ameriketako Estatu Batuetan soilik, zientzia-fikziozko film eta liburu distopiko eta apokalipsi osteko guztietan ikusten den bezala— eragina izan zuen fenomenoa. Itsualdia isilean jaio zen, Hegoaldeko Asian: India, Bangladesh, Pakistan eta Afganistan. Hirugarren Mundu Gerrako hondamendi nuklearraren aztarna berankorrekin lotu genuen tupusteko ikusmenaren galera orokortu hura; Estatu Batuetako presidentek Ipar Koreari atxikitu zion Itsualdiaren erantzukizuna, baina gatazka berri bat ekiditearren, eta herrialde asiarra duela zortzi urte amaitutako gudan suntsitu zela gogoan izanda, ez zitzaion aparteko garrantzirik eman arazoari. A ze hutsa, barkaezina!

Laster Itsualdia mundu osoan zehar barreiatu zen, biztanleen egonezinarekin batera, eta greziar, mexikar, hegoafrikar, australiar eta mundu osoko gizakien begiak bat-batean erretzen den bonbilla bat bezala itzali ziren. Orduan larrialdi-egoera deklaratu zen, eta, Itsualdiak begirunerik gabe —hitz-jokoa baliagarria bekit— planeta burusi ilun batez estaltzen zuen bitartean, Nazio Batuen Erakundeko estatu operatiboak biziraupen plana

moldatzen ahalegindu ziren denbora-tarte murriztu batean. Negoziaketak latzak eta tirabiratsuak izan ziren, baina azkenean, batik bat egunero ordua eta eguraldiaren berri ematen dituen tramankulu adimenduna eskuratzea lortu genuen, gure erregina maitearen ohoretan «Catherine» izendatu nuena.

Alferkeriari aurre egin eta salto batez ohean eseri naiz. Bederatziak eta hogeita bost dira. Makil zuria eskuratzeko luzatu naizenean, ustekabeko izpi batek buruko mina eragin dit. Ez da neure itsutasunean iluntasun amaiezinak helduta, *ikusten* ditudan zetaka psikodelikoak bezalakoak; iraunkorra da, sendoa, ziztatzailea. Betazalak altxatu ditut, astiro, kostata eta beldurrez. Eguzki-izpi batek bete-betean jo nau, eta burua alde batera egin behar izan dut.

—Arraioa!

Hatzak koltxoian iltzatu ditut eta begiak kliskatu ditut, sinistu ezinik. Argia ez da desagertu. Pixkanaka, mesanotxearen, alfonbra koloredunaren eta nire pantuflen irudiak ikusi ditut, lausotuak, hori bai, betaurrekorik gabeko miopeak ikusten duen antzera. Behin neure begiek aurrean dudana enfokatzea lortu dutenean, ohetik altxa eta aitaren batean eskuratu ditudan lehenengo arropak jantzi ditut, hatz dardartiez. Ate nagusia zeharo ireki eta 10 Downing Streeteko eskailerak estropezuka jaitsi ditudanean, erabat lur jota gelditu naiz. Egia da Johnsonek bere ametsak egia bihurtu zituenetik, Londresek ez duela lehenago

lepotik bere burua, baina Elizabeth II.a, goian bego, hil zenekoa eta bere biloba Gilen koroatu zutenekoa bezalako elkarretaratze masiboa espero nuen. Ez al ditu poztu ikusmena berreskuratzeak?

Kalean barrena ibiltzen hasi naiz, Westminsterreko abadiarako bidean, hiriko patxada ia fantasmagorikoa bidaide gisa. Nire ikuseremuan Big Ben dorrea ageri denean, begirada zero ilunera altxatu dut, euria egingo duenentz frogatzeko. «*Don't tell them you can see*», dio hodeien artean azaldu den holograma modukoak, egonezina baino zalantza gehiago sorrarazi didanak. Horregatik ez ote dut inorekin ere topo egin bidean zehar? Zeintzuk dira *haiek*? Zer demontre gertatzen ari da? Ezkutatu beharko nuke, ala oinez jarraitu? Inor zelatan baldin badago, honezkero ikusi behar izan nau; eza guterraza naiz oso, beraz, zauritu nahi izan banindute, honezkero hilda egongo nintzatekeen. Arrazoibide zoro horri jarraituz, Westminsterreko zubia gurutzatu eta London Eyera gerturatu naiz, kapsuletako baten barruan egonda, egoeraren inguruan hausnartzeko giro egokia lortzeko asmoz. Txartel-leihatilara iritsi naizenean, ordea, pikutara joan dira James Bonden erako nituen plan guztiak.

Tabakoaren usain sendoa da lehendabizi aditu dudana. Pauso batzuk aurreratu eta salmenta bulego txikia atzean utzi dudanean, zigarretaren jabearekin buruz buru egin dut. Bera, nire agertzeaz oharkabetuta, zigarroa askatu eta kristalezko paretara arrimatu da, begi urdinok nigan josiz. Ni ikus-

teko gai da, zalantzarik gabe, baina haren begirada eta imintzio larrituak ikusirik, *haietako* bat ote naizen ustea izan behar du. Berarengana gerturatu naiz, bost urteko agintaldiak irakatsi dizkidan kontu eta pazientziaz. Mesfidantzaz behatu du luzatzen ari natzaion eskua. Buruan western filmetako dueluen doinua aditu dut.

—Walter Dixon naiz, Erresuma Batuko lehen ministroa.

Badirudi nire izena esateak, neskak ezagutu nazan balio izan duela. Jarrera autodefentsiboa utzi, bostekoa eman eta bere burua aurkeztu du, nik egin dudan moduan.

—Irina Michele, astrofisikaria eta NASAko astronauta.

Zer esan jakin gabe begiratu diot. Ez dut ulertzen nola iritsi den Londresera, Europar Batasunetik banandu eta mundutik bakandu ostean, estatubatuarrek eta britainiarrok urteak eman baititugu gatazkan. Iparramerikarrek eratutako Aliantza Handiarekin batzeari uko egin genionean, batik bat arazo ekonomikoak zirela medio, gure harremana betiko suntsitu zen. Urteak daramatzat estatubatuar batekin suertatu gabe, eta Irinak, nire harridura nabaritzuz, doinu etsiz jarraitu du:

—Nazioarteko Espazio Estazioan ibili naiz azkeneko urte eta erdian, materia iluna eta energia iluna aztertuz. Duela sei hilabete bueltatu behar izan genuen Lurrera, baina handik honako aginduak eten egin ziren eta ezin izan dugu orain arte

lur hartu. Estazioak orbitan zuen kokaleku desegokiaren ondorioz, hemendik pare bat miliako distantziara erori ginen, orain dela bi gau.

Hereneguneko gaua ekarri dut gogora. Dutxatik atera berri nintzen eta Catherineri Beethovenen sinfoniak jotzeko eskatu nion. Euria ari zuen, eta, tupustean, trumoiaren antzeko dunbotsa aditu nuen. Ezer egiterik ez, izaren azpian etzan nintzen, gertatu berri zena musikarekin ahaztuz.

—Nire kide bat, komandantea, momentuan hil zen. Besteok zaurituak gaude, baina bizirik, bederen —etenaldi bat egin du, ezbaian—. Zer gertatu da hemen? Zer esan nahi du zeruko mezu horrek?

Dauzkadan aukera guztiak aztertu ditut. Gauzak dauden bezala egonda, ezin diot beharbada hogei miliako eremuan aurkituko dudan pertsona bakar-rari bizkarra eman. Kontatu didan istorioa bat dator duela bi gaueko gertakizunekin. Eta, britainiarra naiz, Jainkoarren! Gauza beharra da nork bere betekizunei erantzutea, ezin huts egin ardurara horri... Lagundu egin behar diot. Galdera-ikurrez betetako arazo honi irtenbidea eman behar diot.

—Eraman nazazu zure kokalekura, eta ahal dudan neurrian zalantza guztiak argituko dizkizut.

Kalaka luze eta sakon baten ostean, Tower Bridgera iritsi gara, gutaz gain, gizakirik ez agerian. Zubiko dorre batera igotzeko gaudenean, haize-bolada batek Irinaren ilea nahaspilatu du. Di-da batean orraztu du, baina haren garondoko tatuajea ikustera iritsi naiz. Izar gorria, zirkunferentzia urdina inguruan, Irinaren azalak ordezka-

tutako hondo zuria... Aliantza Gorriaren ikurra dirudi, Ipar Koreak Hirugarren Mundu Gerran erabilitakoa. Baina... ez du zentzurik. Zergatik...? Nolatan...? «Amerika Kapitainaren ezutuaren sinbolo alderantzikatua izan liteke», pentsatu dut. «Ez du zertan ezer esan nahi. Ustekabe bat, besterik ez».

Atzean utzi dudan eskailera-maila bakoitzeko errepikatu dut hura, baina ezin ditut burutik susmo txarrak uxatu. Nola edo hala, beranduegi da atzera egiteko; beraz, bihozminduta, zoru gardenetako pasabidera jarraitu diot Irinari. Turistaz gainezka ikustera ohituta, gogoratzen nuena baino zabalagoa da. Erdibidean, lurrean eserita, dozena bat lagun daude. Ez naiz etnietan aditua, baina guztiak asiarrak dira, ezbairik gabe. Txinatarrak, vietnamdarrak, thailandiarrek, batek daki! «Errusiarrak eta iparkorearrak besterik ez dira falta Aliantza Gorriko kide guztiak ordezkatuak izateko», otu zait, olgetan-benetan. Irinak atzera egin duen aldi berean, asiarren artetik hogeita bi bat urteko mutikoa altxatu da. Txinatarren erako begiak ditu, masail potolo samarrak eta irribarre maltzurra. Haren ile-mozketa bereizgarriak aurreneko susmo txarrak areagotu dizkit, bere burua aurkeztu duenean guztiz baieztatu direnak.

—Ongi etorri, ministro. Kim Jong-Seun naiz. Luzaroan egon naiz zu ezagutu nahian.

Begirada atzera egin dut, Irinak eta ez dakit nondik atera den gizon ilehori batek bidea moztu didatela ikusi dut. Kale itsuan nago. Kim Jong-Un dik-

tadore ohiaren seme gaztearengana bihurtu naiz. Mutikoak begiak nire atzealdean josi ditu, irribarratsu.

—*Spasibo, Irina i Ivan. Ty mozhesh' uyti.*

Aipatutako bi horiek buelta eman eta eskaileretatik behera desagertu dira, eta hizkuntza ezezagun batez mintzatu ostean, berdin egin du bere lagun-taldeak. Bakarrik gelditu gara, eta ezer esan gabe, berarengana gerturatu naiz, lehen bururaturako txiste makabroa zuzena zela burutik kendu ezinik. Errusiarrak ditugu, eta baita iparkorearrak ere. Ezer egitekorik ba al dut hemen?

—Oso hiri polita —bota du, isiltasuna hautsiz.

—Hiltzat jo zintuzten —esan dut momentu berean, ahots-doinu serioz. Ez nago txantxetarako; Kim Jong-Seun, ordea, ezin hobeto dabilela dirudi.

—Aita hilda aurkitu izanak ez du esan nahi neuk ere hilda egon behar nuenik —ihardetsi du ingeles perfektu batez, eta irri zuriz lagunduta—. Herritik atera ninduten estatubatuarren inbasioaren aurretik. Siberian ezkutatu naiz orain arte.

Kopeta zimurtu dut, Errusiak gerra galdu ondoren erregimen guztiz hermetikoa hartu eta britainiarron asilo politikoaren eskaintza errefusatu izana ulertuz. Isilune luze eta ezeroso baten ondoren, jaiki naizenetik buruan eduki dudana galdera bota diot, urduri.

—Zuek sortu zenuten Itsualdia?

—Bai.

—Nola?! Zergatik?!



Mutikoak irri egin du, nire jakin-minaz txoratu-ta.

—Zortzi urtez egon gara birusa diseinatzen, sortzen eta hobetzen, laborategi eta teknologia hain aurreratuekin, ezen Wachowskitar ahizpek baino ezin baitezakete amets egin horiekin. Probaldi ugari egin izan behar genuen, iaz gure bertsiorik gorena aurkitu genuen arte. Nire izena jarri genion, baina Itsualdia ez dago batere gaizki, ez. Zure bigarren galderari erantzunda, nahiko argi dagoela uste dut, ezta? —orain ahots-doinu harro hori erresumindu egin da—. Herria galdu nuen. Aita. Familia. Hamalau urte besterik ez nuen, eta Estatu Batuek ezagutzen eta maitatzen nuen guztia kendu zidaten. «Bergia begi truk eta denok itsu», baita itsu gelditu ere.

—Eta horretarako mundu osoa itsutu behar zenuen? Baita zure aliatuak ere?

Haren hitzek ikara eman didate, baina ahalik eta ondoen disimulatzen saiatu naiz.

—Aliantza Gorria nahiko kaltetua atera zen gerratik, eta denbora kendu behar genien Estatu Batuei, kontraerasoa burutzen genuen bitartean. Dena primeran ateratzeko, sakrifizioa beharrezkoa zen, baina Itsualdia amaituta esnatu nituen. Birusa kontrola dezaket, eta nahi dudanean desaktibatu.

—Hori da nirekin egin duzuna? Esnatu egin nauzu?

—Zurekin hitz egin behar nuen, Walter. Hikaz mintza nakizuke? —nire erantzunari itxaron gabe, jarraitu du—. Entrenatzen egon gara, gau eta

egun, zortzi urte luzez. Gudaroste handia dut, baina Itsualdia huts egiten hasi da eta pertsona batzuk ikusmena berreskuratzen ari dira. Arrastoan sartuak izan behar ditut misioa burutu bitartean, horregatik zeruko holograma... Dramatikotasun puntu kitzikagarri bat du, ezta?

Burutik dago. Erabat jota.

—Beraz, ondo ulertu baldin badut, neure laguntza behar duzu. Neure armada. Zerk pentsarazi dizu lagunduko dizudala?

—Nire arerioen arerioa nire laguna da, ez da hala? —besoa sorbaldetan ipini, eta zaplada batere ez adiskidetsua eman dit—. Oso estimatzen dut zure zorroztasuna, Walter. Hauxe da nire proposamena: zuk eta zure herritarrek Estatu Batuak txikitzen laguniezadazue, eta eraikiko dudan mundu berrian leku bat egingo dizuet trukean. Hausnartzeko denbora emango dizut, ados? Ondo erabakiko duzula espero dut.

Pasabidean barrena urrundu da eta haren azkeneko oharpenak buruan burrunba egin dit. Neure berrogeita bost urteko bizitzan, ez dut inoiz neure burua horren bidegurutze larriaren aurrean ikusi. Egia da Estatu Batuen eta Erresuma Batuaren arteko harremana ez dela hain zuzen ere urrea diamantearekin, baina Kim Jong-Unen kopia maltzurra, nartzisista eta fidagaitzarekin elkartzea ez dirudi ideia ona. Haren Itsualdi madarikatuak heriotza mordoa eragin du, ikusmen galeraren aurrean euren bizitzarekin jarraitu ezinik, urka-soka edo pilula bidezidortzat hartu zutenena; neure

Adelaide kuttuna, neure laztana... Une honetan bertan garbitu beharko nuke, azken batean, ez daukat zer galdurik. Baina, bestetik, zer gertatuko litzateke ezetz esango banu? Ez ninduke bizirik utziko, beraren egitasmoa jakinarazi bainezake, eta ziurrenik britainiar ororen aurka egingo luke. Agintea eskuratzean Gilen V.aren aurrean eginiko promesa oroitu dut. Neure herritarren gerorengoz konturik ez egin, ala Kim Jong-Seunen txotxongilo armadunak bihurrarazi? Men egin, ala hil? «Helburuak bitartekoak justifikatzen ditu», ala «gizateria xede izan beti, inoiz ez bitarteko»? Makiavelo ala Kant?

Tamesis ibaiaren joan-etorri geldoari begira, erabaki bat hartu dut azkenean.